

## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 2015eko IRAILAREN 10ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA

2015eko irailaren 10ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, gaueko 20.30 orduetan, Aneli Urbieta Etxeberria Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.


ZINEGOTZIAK:     Gotzon Jauregi Sarasola  
                      Cristian Ivo Sebastian Pizarro Jofre  
                      Ander Leon Nanclares  
                      Angel Serrano Martinez  
                      Felix Joaquin Asensio Robles  
                      Aritz Sarria Saraqueta

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
  - **2015eko uztailaren 30ean egindako ohiko bilkura./Sesión ordinaria de fecha 30 de julio de 2015.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. 2014. Urteko Kontu orokorraren onspena, hala bada./ Aprobación de la cuenta general presupuestaria ejercicio 2014.**
- 4. I.Z. andreak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada/ Estudio de la solicitud realizada por I.Z..**
- 5. J.A.L. jaunak eginiko eskaeraren azterketa, hala bada./Estudio de la solicitud realizada por J.A.L.**
- 6. Zaborren eta konpostagailuen ezarketaren azken berri ematea, hala bada/Dación de cuenta de la implantación de compostadores y del sistema de recogida de residuos.**
- 7. 2014-2015 ikasturterako Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko eginiko diru-laguntzen onspena, hala badagokio./**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Aprobación de las solicitudes de ayudas económicas a los habitantes de Larraul por cursos de euskara, curso escolar 2014/2015.
8. TOLOMENDI-ri 2015 urteari dagokion ekarpena burutzea, hala bada/Aportación económica a Tolomendi correspondiente al ejercicio 2015.
  9. Lankidetzaz hitzarmenari atxikitzea, Trafikoko buruzagitza Nagusia Erakunde Autonomoaren eta “federación española de municipios y provincias”-en artekoa, informazioa trukatzeko eta euren artean lankidetzaz aritzeko./ Adhesión al convenio de colaboración entre el Organismo Autónomo Jefatura central de tráfico y la federación española de municipios y provincias para el intercambio de información y la mutua colaboración administrativa.
  10. Grupo OIBERDIN-ek aurkezturiko aurrekontuaren azterketa, hala bada/Estudio del presupuesto presentado por el Grupo OIBERDIN.
  11. Fakturak eta ordainketak/ Pagos y facturas.
  12. Beste batzuk/Otros.
  13. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.

.../...

### LEHENENGO PUNTUA

#### **ONDOREN AIPATZEN DEN UDALBATZAREN AKTA ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2015 urteko uztailaren 30eko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuak aho batez onesten dute.

### BIGARREN PUNTUA

#### **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate andreak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

22/2015 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 11koa, 2016 urterako Larraulgo Udalerriko jaiegun bezala abuztuak 3, asteazkena, finkatzea, ebazten duena.


23/2015 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 17koa, Y.P. andreak eginiko eskaera onestea, ebazten duena.

24/2015 Alkatetza Ebazpena, abuztuaren 28koa, S.B. andreak eginiko eskaera onestea, hau da, herri bidea erabiltzeko baimena ematea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira.

### HIRUGARREN PUNTUA

#### **2014. URTEKO KONTU OROKORRAREN ONESPENA, HALA BADA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2014 ekitaldiko Larraulgo Udaleko Kontu Orokorra 15 lanegunez jende aurrean jarri dela, bere iragarkia Udaleko Iragarki Taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz, edonork aztertu eta egoki zituen alegazioak aurkeztu zitzaizkion.

Ikusirik 2015ko uztailaren 30ean argitaratu dela iragarkia GAOn eta jendaurreko epea ireki dela 2015eko abuztuaren 1etik 20ra bitartean, biak barne, ez delarik bere aurka inolako iradokizun zein erreklamaziorik aurkeztu.

Ikusirik Udaleko Behin behineko Idazkariak Kontu Orokorrari buruz egin duen txostenean dioena.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez, ondorengo,

### ERABAKITZEN DUTE:

LEHENA.- Abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Ogasunen Aurrekontuari buruzkoak, xedatutakoarekin bat etorritik Larraulgo Udaleko 2014 ekitaldiko Kontu Orokorrari behin betiko onespena ematea.

BIGARRENA.- Akordio honen berri Herri Kontuen Euskal Epaitegiari ematea.

### **LAUGARREN PUNTUA**

#### **I.Z.ANDREAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik I.Z. andreak eginiko eskaera, non 2015/2016 ikasturtean, Ingeleseko ludotekarekin jarraitu nahi duela eta hau posible ahal izateko, Udal lokal baten eskaera egiten duen. Aurreko ikasturtean liburutegia erabili zuelarik.

Gaia azterturik, Ander Leon zinegotziaren abstentzioarekin, Udalbatza honek, gehiengo absolutuz, ondorengo


### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: I.Z. andreak eginiko eskaera onestea, hau da, udal liburutegia erabiltzeko baimena ematea, ingeleseko klaseak emateko. Ikasturtea amaitutakoan, utzitako giltzak, Udal bulegoan utzi beharko duelarik.

BIGARRENA: Erabaki honen berri I.Z. andreari ematea.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

#### **J.A.L. JAUNAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik J.A.L. jaunak eginiko eskaera, non azaltzen duen 2014ko irailaren 4ean eginiko Udalbatzarrean, poligono 1, 135 lursailean, txabola bat eraikitzeko obra baimena eman zitzaiola.

Ikusirik, J.A.L. jaunak aipaturiko txabola bera egiten ari dela, eta eraikitzeko epea amaitu zaiola.

Aurrekoa kontutan izanik, J.A.L. jaunak Udalbatzari poligono 1, 135 lursailean egiten ari den txabolaren obra baimena sei hilabetez luzatzeko baimena eskaera egiten du.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: J.A.L. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, poligono 1, 135 lursailean egiten ari den txabolaren obra baimena sei hilabetez luzatzea, jakinarazpen hau jasotzen duen hurrengo egunetik hasiko da epea kontatzen.

BIGARRENA: Erabaki honen berri J.A.L. jaunari ematea.

### SEIGARREN PUNTUA

### **ZABORREN ETA KONPOSTAGAILUEN EZARKETAREN AZKEN BERRI EMATEA, HALA BADA**

Aritz Sarria zinegotziak hartzen du hitza, batzarkideei jakitera emateko, herri guztian konpostagailuen ezarketa burutu dela, hiru etxeetan izan ezik.


Aurreko Korporazioak, konpostagailuak jartzen ez ziren etxeetako, zabor tasa berri bat onestu zuen Ordenantza fiskaletan. Tasa normalaren bikoitza zelarik.

Kontutan izanik, aurreko Korporazioak onestu zuela, 2015eko lehen hiruhilekoan ez aplikatzea aipaturiko tasa berria.

Kontutan izanik, Korporazio berriak bere karguak ekainean hartu zituztela eta ondoren opor garaia izan dela, proposatzen delarik, 2015eko bigarren hiruhilekoan ez aplikatzea aipaturiko tasa berria. Bere aplikazioa hirugarrenko hiruhilabetean egingo delarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: 2015eko bigarren hiruhilabeteari dagokion “ etxez-etxeko bilketa, konpostajea egiten ez dutenentzat, hiruhileko 86 euro” tasa berria ez aplikatzea. Tasa arrunta aplikatuko delarik.

BIGARRENA: Konpostagailua jartzeko falta diren hiru etxeei, idatzi bat bidaltzea, non esango duen, 2015eko irailaren 30arte epea izango dutela aipaturiko konpostagailua jartzeako, bestela 2015eko hirugarren hiruhilabeteari dagokion zabor tasa berria aplikatuko zaiela.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**

### **2014/2015 IKASTURTEKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZEN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Udalak 2015eko uztailaren 30ean ospatutako ohiko Udalbatzarrean 2014-2015 ikasturterako Larraulgo biztanleentzat euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusirik hainbat eskaera aurkeztu direla, onartutako 2 , 3 eta 4 oinarriak betetzen dituztela, ondorengoak direlarik:

<b>IZEN ABIZENAK</b>	<b>JARDUERA</b>
I.S.G.	EUSKARA
F.A.O.	EUSKARA
P.P.S.	EUSKARA
J.G.A.	EUSKARA
P.H.G	EUSKARA
K.V.D.W.	EUSKARA
L.P.O.	EUSKARA


Gaia aztertutik, bertaratuek, aho batez

### **ERABAKITZEN DUTE**

LEHENGOA.- 2014-2015 ikasturterako Larraulgo herritarrei Euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzak onestea, diru-laguntza eskaturiko % 100 izango delarik. Eta bere ordainketa egin dadin agintzea.

BIGARRENA.- 2015 urteko udal aurrekontuan kreditu nahikoa aurreikustea.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri interesatuei ematea.



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**ZORTZIGARREN PUNTUA**

**TOLOMENDI-ri 2015 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Garapen elkarteak, TOLOMENDI-k, 2015eko apirilaren 29an Tolosan ospatutako urteko Batzar Orokorrean, 2015. Urterako Elkartearen aurrekontua onartu zuela.

Ikusirik goian aipaturiko banaketa horren ondorioz, Larraulgo Udalari 1.977,72 euro ordaintzea dagokiola, elkartearen funtzionamendurako.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENGOA.- Tolomendi Landa Garapen Elkarteari 1.977,72 eurotako ekarpena burutzea 2015 ekitaldiko funtzionamendu gastuei aurre egiteko.

BIGARRENA.- 2015 urteko aurrekontuan partida nahikoa aurreikustea.

**BEDERATZIGARREN PUNTUA**


**LANKIDETZA HITZARMENARI ATXIKITZEA, TRAFIKOKO BURUZAGITZA NAGUSIA ERAKUNDE AUTONOMOAREN ETA FEDERACION ESPAÑOLA DE MUNICIPIOS Y PROVINCIAS-en ARTEKOA, INFORMAZIOA TRUKATZEKO ETA EUREN ARTEAN LANKIDETZAN ARITZEKO.**

Ikusirik Trafikoko buruzagitza nagusia erakunde autonomoaren eta "Federación Española de municipios y provincias"-en arteko hitzarmena, non informazioa trukatzeko eta euren artean lankidetzan aritzekoa den.

Ikusirik aipaturiko hitzarmen horren helburua dela, herritarra udal bulegora erroldatzera edo erroldan aldaketa bat egitera datorrenean, aldaketa horiek Trafikori jakinaraztea, bai gida baimenaren datuetan, bai eta ibilgailuen datuetan aldaketak burutu daitezzen, Trafikoko ordezkariak bulegora joan beharrik izan gabe.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Trafikoko buruzagitza nagusia erakunde autonomoaren eta “Federación española de municipios y provincias”-en arteko lankidetzan hitzarmenari atxikitzea, informazioa trukatzeko eta euren artean lankidetzan aritzeko.

BIGARRENA: Larraulgo Alkate-Lehendakaria den Aneli Urbieta andreari, aipaturiko hitzarmenak sor ditzazkeen dokumentuak sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA: Trafikoko buruzagitza nagusia erakunde autonomoari erabaki honen berri ematea.

### **HAMARGARREN PUNTUA**

**GRUPO OIBERDIN-ek AURKEZTURIKO AURREKONTUAREN  
AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik energiaren eraginkortasunerako argiteri publiko guztia aldatu zela 2014. Urtean.

Ikusirik Larraulgo herrian, argi indar mozketan ugari izaten direla, argiteri publikoan jarritako farolak matxuratu egiten direlarik.

Ikusirik, Grupo Oiberdin-ek aipaturiko arazoari irteera bat eskaini duela, hau da, farola guztietan “descargador de sobretensiones para luminaria LED eta descargador de sobretensiones para cuadro de cabecera” jartzea. Horretarako aurrekontu bat aurkeztu delarik Grupo Oiberdin-ek. Aurrekontua 1.786,64 euro delarik (BEZ gabe).

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Grupo Oiberdin-ek aurkezturiko aurrekontua onestea, hau da, “descargador de sobretensiones para luminaria LED eta descargador de sobretensiones para cuadro de cabecera” jartzeko aurrekontua onestea, eta bere instalakuntza egin dezan onestea. Bere kostua, 1.786,64 euro delarik.

BIGARRENA: 2.161,83 euroko gastua onestea.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri Grupo Oiberdin-i ematea.


### **HAMAIKAGARREN PUNTUA**

**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari andreak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

TOLOMENDI

150,00



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

SANIPLAST	188,38
JOXAN ALTUNA	302,52
EITD	175,45
IZFE	1.874,82
URBIETA	223,85
CORREOS	3,74
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	210,66
LIDOINSA	318,53
SANIPLAST	100,01
TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEA	1.089,58
MANPEL	369,86
TOLOMENDI	150,00
IBERDROLA	182,18
IBERDROLA	32,14
IBERDROLA	244,60
IBERDROLA	85,73
IBERDROLA	159,49
MOVISTAR	136,22
MOVISTAR	52,48
MOVISTAR	18,58
MOVISTAR	48,58
MOVISTAR	18,59
MOVISTAR	48,58
MOVISTAR	19,17

Udalbatzarrak **ah**o batez hurrengoa,

ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **6.203,74** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.


### **HAMABIGARREN PUNTUA** **BESTE BATZUK**

#### **12.1. Y.P. ANDREA ETA LARRAULGO UDALAREN ARTEKO AKORDIOAREN ONESPENA, HALA BADA**

Ikusirik 2015eko irailaren 7an Y.P. andreak Larraulgo Udaletxera aurkezturiko idatzia.

Aipaturiko idatzia aztertutik, Larraulgo Udala, Y.P. andrearekin hitz egin eta bi alderdiek ondorengo akordiora iritsi zirela:





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### ANTECEDENTES:

*La Sra. Y.P. dio entrada en este Ayuntamiento de una petición para manifestar su intención de cesar en la actividad de gestión del Herri Ostatua de Larraul. Solicitando la devolución de la fianza depositada en su día.*

*Estudiada la petición desde este Ayuntamiento, se procede a tratar el tema con la Sra. Y.P. puesto que lo solicitado no es conforme y se decide tratar por el apartado del mutuo acuerdo, llegándose con la misma a la siguiente,*

### RESOLUCION:

*-La Sra. Y.P se compromete a mantener el Herri Ostatua en funcionamiento hasta el 22 de diciembre de 2015.*

*-Se procederá a realizar una inspección a fin de determinar si existe algún desperfecto que deba ser cubierto por la fianza.*

*-Se procederá a devolver el 70% de la fianza una vez descontado el gasto teniendo en cuenta que ha prestado el servicio del 70% del contrato. Abonándose el mismo antes del 23 de diciembre de 2015.*

*-Los 22 días del mes de diciembre se consideraran a efectos de traslado, pudiendo estar el Herri Ostatua abierto al público sin que la arrendataria deba abonar la cantidad correspondiente.*


*-Durante dichos días la arrendataria no pondrá ningún impedimento para que el nuevo arrendatario realice las mejoras correspondientes, sin que ello suponga perjuicio para la actividad.*

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Y.P. eta Larraulgo Udalaren artean hartutako akordioa, aurreko lerroetan azaltzen dena, bere osotasunean berrestea.

### **11.2. LARRAULGO BEOBIDEGAIN 18 EZK. ETXEKO HEGOALDEKO FATXADAN JARRITAKO EGUZKI PLAKA BAT LEGEZTATZEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, L.M.T.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ikusirik 2007ko azaroaren 27an egindako Udalbatzarrean, L.M.T. jaunari Beobidegain 18-ekz. Etxearen belardian eguzki energiako plakak jartzeko obra baimena eman zitzaiola.

Ikusirik, aipaturiko eguzki plaka 2015eko uztailean jarri duela etxebizitzako hegoaldeko fatxadan.

Ikusirik, L.M.T. jaunak aipaturiko obra legeztatzeko obra baimena eskaera egin duela.

Kontutan hartuz, eguzki plakaren gaur egungo kokapena egokiagoa dela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- L.M.T. jaunak eginiko eskaera onestu, hau da, Larraulgo Beobidegain 18-ekz. Etxebizitzako hegoaldeko fatxadan jarritako eguzki plaka legeztatzeko obra baimena ematea.

BIGARRENA.- Indarrean dauden Ordenantza fiskalen arabera dagokion kitapena ez egitea, aurreko obra baimenean egin zitzaiolako.


HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri L.M.T. jaunari ematea.

### **HAMAIKAGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

Ondorengo gaiet buruzko informazioa ematen da:

1.-Tolosaldea Garatzen: Ander Leon zinegotziak, Tolosaldea Garatzen eta Apattaerrekako industriaguneako, udal ordezkariak, batzarkideei jakitera ematen die, irailaren 7an Tolosaldea Garatzen eta Apattaerrekako industriaguneako Batzar Nagusiaren eta Administrazio kontseiluko osaketako batzarrak egin zirela. Bildu eta EAJ taldeak aurrez akordio bat hartu zutela. Beraz, Tolosaldea Garatzen eta Apattaerrekako industriagunea, S.M.-ko Batzar Nagusiko Lehendakaria EAJ-ko ordezkaria izendatu zuten.

Tolosaldea Garatzen, S.A. ko Administrazio kontseiluan, herri independenteen ordezkari bezala, guztion adostasunarekin, Alkiza eta Hernialdeko ordezkariak sartu ziren. Apattaerrekako industriagunea, S.M.-ko Administrazio kontseiluan berriz, Alkizako ordezkaria sartu zen.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ander Leon zinegotziak jakitera ematen du herri independenteen artean adostu zutela, Administrazio Kontseiluko bileretako akta herri guztietara igortzea.

Azkenik esan, bileran tratatu zen guztia izendapen berriak eta aurreko bajak izan zela.

2.-TOLOSALDEA GARATZEN: Ander Leon zinegotziak batzarkideei jakitera ematen die, Tolosaldea Garatzen-en bidez kudeatzen ari direla Lanbidek emandako diru-laguntzak, non Tolosaldeko enpresari pribatue enplegua sustatzeko 50 lanpostu finantzatzeko diru-laguntzak eman dien.

Lehen, enplegua sustatzeko diru-laguntza hauek Udaletxeei zuzenean ematen zitzaie, baina, 2014 urtean formula berri hau aplikatuz ikusi zuten sortutako lanpostuen % 50-ak lanean jarraitu zutela.

Azkenik esan, Larraulgo Udaletxeak, Larraulgo herrian aktibidade bat duten enpresariei eskutitz bat bidali diela, aipaturiko diru-laguntza hauen berri emanaz.

3.-Hernio-Gazumeko proiektua: Aneli Urbieta alkatea, berri ematen du Hernio-Gazume kontserbaziorako Eremu berezian agroekologia sustatzeko azterketa: Larre-habitaten kudeaketa plana egin dela. Proiektu honen helburuak lortzeko diru-laguntzak eskatu beharko direlarik.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 20.50 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA